EKITALDIAK-EVENTOS / SIDRERÍAS-SAGARDOTEGIAK

Zelaia Sagardoak berrikuntza saio bat egin du Basque Culinary Center-en.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 11/03/2013 • 15:11 Sin comentarios

Zelaia Sagardoak berrikuntza eta ikerketa saio bat egin du gaur goizean Basque Culinary Center-en, sagardoaren munduaren eta Zelaiaren beraren etorkizunaz hausnartzeko eta jarraitu beharreko bideez eztabaidatzeko.

Jose Antonio Gaincerain berak, orain arteko Zelaia Sagardoako arduradun nagusiak, esan bezala, beren belaunaldiak egin beharreko lanak ia bukatuta daude. Sagardoaren mundua berreskuratzea eta indartzea lortu dute, eta azken urte hauetan kalitatearen esparruan jardun dute lanean. Gorenak da horren adibide.

Orain belaunaldi berriak datoz ate joka eta haiek izan behar dute bide berria egin eta ibili behar dutenak. Orain artekoen ardura belaunaldi berriei beren ezagutza eta munduan egoteko modu bat transmitzea da; horixe da belaunaldi zaharraren azken eginbeharra. Hori horrela, Jose Antonio Gaincerainek jakinarazi du erretiroa hartzera doala eta aurrerantzean Zelaia Sagardoaren gidaritza bere alaba Oihanak eta Jaionek hartuko dutela; ingeniari agronomoa eta marketing eta enpresa kudeaketarako teknikaria, hurrenez hurren.

Gaincerainek orain artean lortutako guztia jendeari, komunitateari, zor diola esan du, eta hori bueltan haie entregatzea gustatuko litzaiokela. Egindako bide guztian zehar jende askorekin topatu izan da Zelaia eta gaurko berrikuntza eta ikerketa saioa horietako batzurekin konpartitu nahi izan du; Zelaiaren etorkizuna ere denen artean eraiki ahal izateko. Gaur goizeko berrikuntza saioan esparru profesional ezberdinetako profesionalek hartu dute parte: besteak beste, hornitzaileek, banatzaileek, enologoek, kazetariek, Zelaia Sagardoa bertako langileek, ostalariek…

Anterior post
Concurso de Alubias y Sidra en Usurbil.Concurso de Alubias y Sidra en Usurbil.Igande honetan, Babarrun eta Sagardo Lehiaketa Usurbilen.Concurso de Alubias y Sidra en Usurbil.

Siguiente post
Enero 2013: Sidras de Petritegi y Lizeaga para degustar en Sagardoetxea.Enero 2013: Sidras de Petritegi y Lizeaga para degustar en Sagardoetxea.2013ko urtarrila: Petritegi eta Lizeaga sagardoak dastatzeko Sagardoetxean.Enero 2013: Sidras de Petritegi y Lizeaga para degustar en Sagardoetxea.

Tu comentario / Zure komentarioa

Nombre *requerido* **Email** *requerido* **Web**

Enviar

Sagardoaren Lurraldea

Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

RSS Feed
Twitter
Facebook

Buscar / Bilatu

Categorías

Azokak-Ferias
Besteak-Otros
Ekitaldiak-Eventos
Esperientziak-Experiencias
Formazioa-Formación
Gastronomia-Gastronomía
Historia-Historia
Kultura-Cultura
Lehiaketak-Concursos
Museos-Museoak
Sagarra-Manzana
Sagastia-Manzanal
Sidra-Sagardoa
Sidrerías-Sagardotegiak
Turismoa-Turismo

Post Recientes

"Sagastiak loretan" ARGAZKI LEHIAKETA Facebook-en.

"Baserri munduko memoria" sagastiko lan ezberdinen eskutik Sagardoetxean.

2013 UDA: "SAGARDOA ETA ITSASOA" esperientzia turistikoa

Lezon Sagardo Eguna ospatuko da larunbat honetan.